

Aita Jose Gurutze Etxeverria Prantziskotarraren esku-idazti bat Bonaparteren Idazkitegian

MIKOLAITZ-BERRIOTXOA, ALZOLA-TARRAK

Bonaparte Bleschamp L. L. erregegaiaren eskuzko-idatzien artean egonikoa da Oiartzungo Aita Echeverria prantziskotarraren au.

Donostian gordetan da orain. Gipuzkoako Aldundegian. Liburutegian. Eusko-Ikaskuntzan gerraterarte.

Onela aipatzen dau Piarres Garmendiak: «*Amar mandamentuac ta ayec cumplitceco consejuac. Aita Frai José Cruz Echeverria*». (Ikuusi P. Garmendia: «Inventario de los manuscritos del Príncipe L. L. Bonaparte en la Diputación de Guipúzcoa. Depósito de la Sociedad de Estudios Vascos. — Detalle del contenido del sobre n.º 10». *Revista Internacional de Estudios Vascos* XXIV (1933) 143'garren orrialdean.

Amabost orrikoa da. Ogei ta amar orrialdeko. Neurriak: 0,105 x 0,075 m. Bigarren orrialdea bakarrik idatzi barik. Beste danak dagoz idatzita. ¿Aita Etxeverriak bere eskuz egiñak? Esan leike beintzat.

Zenbatuta dagoz *Amar Mandamentuac*. Besteak ez. Neuk zenbatu ditut *Mandamentuac cumplitceco consejuac*: Amazazpi. Aldaraco *Sacramentu Santuaren Cantac Elizaco Sacris Solemnisen donuan cantaceoak* be bai: Ogei ta sei. Orregatik doiaz taket-parentesis artean zenbatuak.

Oiartzuarra zan jaiotez Aita Jose Gurutze Etxeverria (1773). Urnetan il zan, (1853). Vinsonek, Aita Larrinagak, Orixek, Mitxelenak, Aita Villasantek eta beste euskal idazle batzuk idatzi dabe Aita Etxeverriaren bizitza ta liburuei buruz. Idazle aipatua da Euskal Literaturan. Gipuzkerara itzuli ebalako *Jesus-en Imitazioa*, orregatik batez be.

Vida Vasca aldizkarian emon naban orain emen argitaratzen do-

dan esku-idaztiaren barri (Ikusi «Escritores Vascos. Fray José Cruz de Echeverria, o.f.m.»; *Vida Vasca*, XLI (1964), 103-105).

*Irun-en, 1970-garren urtean
Mikolaitz-Berriotxoa, Alzola-tarra*



Jesus, Maria, ta Jose.
Amar Mandamentuac, ta
ayec cumplitceco conseju-
ac, Aita Frai Jose Cruz Eche-
berria Misioneroac zortci-
coan pa[r]atuac (1); baita ere Al-
daraco Sacramento Santua-
ren cantac Elizaco Sacris
Solemnisen tonuan cantatce-
co.

(1) Urak asko garbituta agertzen da “r” izki au, eta ez da ikusten ondo.

Orrialde danak dagoz ondatuta, urak garbituta itz asko, baiña zailtasun audi barik irakurteko moduan geienak.

Lenengo orrialdia, atari moduan dagona, au da geien-geien ondatuta gelditu dana.



Mandamentuetaraco sarrera.

Amar Mandamentuac
 Arren canta ditzagun,
 Falta gabe Jaungoicoac
 Eguingo digu lagun;
 Arren bada Christabac,
 Ezagutu dezagun
 Certara obligatuac
 Gueren burubac dauztagun.

1.^o

Jauna amatuco dezu
 Gauza guztien gañian,
 Eta servituko dezu
 Gogoric antienian.
 Ausseen eguiten badezu
 Bici ceraden artian
 Beráz gozatuco dezu
 Eternidade guztian.

2.^o

Ez eguiñ juramenturic
 Iñoz ere ez bat ere
 Ez bada obligaturic,
 Eguiaz orduan ere;
 Gauza justua ez bada,
 Ez arren eguiñ beñere,
 Ta guezurra baldin bada,
 Ez eguiñ iñoz ere.

3.^o

Jaya santificatcen da
 Meza entzutearequin,
 Egun ura pasatcen da
 Obra onac eguiñarequin,
 Ezda bear eguiñ lanic
 Ezbada premiarequin,
 Jauna servitceagatic
 Biotz guztiarequin.

4.^o

Onratcera gurasoac
Nago ni obligaturic,
Baita ere zarragoac
Jaunac ala aguinduric;
Ez banaiz mundutic joaten
Gauza aussen cumplitric,
Egongo naiz bai penatcen
Infernuan sarturic.

5.^o

Amazazu progimoa
Zure biotz gustitic,
Ez dezu izan bear gogoa
Iñori eguiteco gaitcic;
Ezta ere artu gorrotoa
Bestéc gaizqui eguiñic,
Barcacioa barcacioa,
Gorrotoac utciric.

6.^o

Lujuriaco pecatua
Baldin eguiten badet,
Seigarren Mandamentua
Nic cumplituco ez det,
Nic onelaco gauzaric
Aitatu ere bear ez det,
Gogora etorriagatic,
Bereala bota bear det.

7.^o

Progimoaren ondasunac
Baldin ostutcen baditut ,
Infernuko deabruac
Nic penatuco ez ditut;
Azquenic gabeco penac
Sufritu bearco ditut,
Baldin nic besteren gauzac
Emen gozatcen baditut.

8.^o

Nic egquia esan bear det,
 Iñoiiz ere ez guezurric,
 Asmatu bear ere ez det
 Falso testimonioric,
 Eguin bear ere ez det
 Bear ez dan juicoric,
 Zabaldu bear ere ez det
 Progimoen pecaturic.

9.^o

Deseatu nic bear ez det
 besteren emazteric,
 Biotza iruqui bear det
 Gauza santuz beteric,
 Bereala bota bear det
 Gauza loya burutic,
 Aztu gabe escatu bear det
 Bai laguntza Cerutic.

10.^o

Ez det nic bear deseatu
 Besteren ondasunic,
 Bear derena bai billatu
 Pecatu ez dan bidetic;
 Sortuco dit Jaungoicoac
 Batetic, edo bestetic,
 Cumplitcean Mandamentuac
 Guztiac nere partetic.

* * *

Jaunaren Mandamentuac
 Bai ondo cumplitzen dira
 Jauna, eta progimuac
 Amatzen baldin badira.
 Mandamentu bai guztiac
 Itz bitan oizteca dira,
 Abetatic ibilliac
 Ceruan bicico dira.

Estrabilloa, gusto baldin bada, bi versotic bi versora bezala cantatceco.

Arren adi dezagun
Jaungoicoaren leguea,
Considera dezagun
Legue pare gabea;
Arren cumpli dezagun
Cristau nere maitea,
Guero esan dezagun
Da Cerua nerea.

Mandamentuac cumplitceco consejuac.

[1]

Cristaba adizadazu
 Cer esatera nuan,
 Peligro andia daucazu
 Bai galtceco munduan;
 Gauzacho au artzazu
 Guztiz ondo buruan;
 Arren iruqui zazu
 Beti zure goguan.

[2]

Mundua alde batetic
 Bere engañaquin,
 Araguia bestetic
 Atseguin gaitzoaquin;
 Deabrua bere aldetic
 Bere envidiarequin,
 Guerran daude goicetic
 Gu galtceco indarraquin.

[3]

Peligroa campuan
 Peligroa echian,
 Peligroa ezcutuan,
 Peligroa aguerian,
 Etsaya erretiruan,
 Eta mundu guztian,
 Etsaya inguruan
 Gu galtceco lanian.

[4]

O ceiñ izugarria
 Dan au Cristau maitea,
 Eguiaz bildurgarria
 Onela bicitcea,
 Gauza arrigarria
 Ala bear izatea,
 Gauza negargarria
 Gu descuidatcea.

[5]

Jaungoicoaren graciac
 Laguntcen ezbadiagu,
 Luciferren envidiac
 Lana emango digu;
 Gusto dituen guztiac
 Eraguingo dizquigu,
 Ceruetan gozatciac
 Bai quenduco dizquigu.

[6]

Jaungoicoari (2) lembaitlen
 Encomenda gaitecen,
 Goicetic gracia escatcen
 Arren asi gaitecen
 Onetan trabajatcen
 Aspertu ez gaitecen,
 Beraren gracia galtcen
 Ycusi ez gaitecen.

(2) Berba au, geiena dago urak erdi-garbitua. Batez be “go” eta “co” bi silaba edo berba-atalen erdiko “i” letra-izkia.

[7]

Ur bedeicatua [sic] arturic
 Devocio andiarequin,
 Ondo ondo ciñaturic
 Escari santuarequin,
 Jauna bera billaturic
 Biotz guztiarequin,
 Gauden ondo prestaturic
 Asmo sendoarequin.

[8]

Billa ditzagun Santuac
 Oracioaren medioz,
 Guretcat bitartecuac
 Jaunaren amorioz,
 Artu ez gaitzan pecatuac
 Tentacioen poderioz,
 Iruqui ez gaitzan deabruac
 Penaz, ta suspirioz.

[9]

Santuetan lenena
 Da Virgiña Maria,
 Bitartecoric onena
 Eta guztiz andia,
 Billatu arren aurrena,
 Cristau nere maitia,
 Logra dezazun bearrena
 Salvatceco gracia.

[10]

Egunero albadezu
 Zuaz Meza enzutera,
 Jesus muguituco dezu
 Bai zu bedeicatcera; (3)
 Arren oitu bear dezu
 Au zuc beti eguitera
 Oraindaño eguin badezu,
 Muguitu bai seguitcera.

[11]

Pecatuco ocasioetatic
 Chit contuz guardazaitez,
 Baita lagun gaiztoetatic
 Beti aparta zaitez;
 Dala au zure onagatic
 Arren oroitu zaitez,
 Arren Jaungoicoagatic
 Contuan bici zaitez

[12]

Mundutar eroagaitic
 Iñoz lotsatu etzaitez,
 Obra onetan Jaunagatic
 Gogoz ibilli zaitez;
 Ayen erausiacgaitic
 Atceratu etzaitez,
 Betico ez galtceagaitic
 Ayetzaz burla zaitez.

(3) Zuzenduta dago utsegite bat esku-idatzian.

[13]

Libruchonac letzatzu
 Dezaquezun maicena,
 Consideracioa eguin zazu
 Alic ere ondoena;
 Sacramentuac artzatzu
 Au da principalena,
 Arren luzatu ez zazu,
 Ez dezu izango pena.

[14]

Sacramentuac artcia
 Zuc luzatzen badezu,
 Animaco indar guztia
 Larter (4) galduo dezu;
 Pecatuan erortcia
 Laster (5) izango dezu,
 Gracian zuc irautia
 Logratuco ez dezu.

[15]

Sacramentuetan dago
 Animaco on guztia,
 Ecertain gueyago ez dago
 Gu erraz salvatcia;
 Aussen baño gueyago
 Ecin da ez, esatia
 Orain eta gueruago
 Mereci du pensatcia.

[16]

Deabruac au jaquiñic
 Esperienciarequin,
 Escusac ipiñiric
 Asco engañurequin,
 Ez du utcitcen aleguiñic
 Bere envidiarequin,
 Ea gauden bat eguiñic
 On añ andiarequin.

[17]

Zuaz bada zuaz arren
 Ondo confesatcera,
 Zuaz bai arren lenbailen
 Gracia billatcera;
 Ez arren utci luzatcen
 Il batetic ez bestera,
 Betico joan zaitecen,
 Ceruetan gozatcera.

Estrabilloa, gusto baldin bada, bi versotic bi versora bezala cantatceco.

Cristabac aditzatzute,
 Nere consejichoac,
 Consideratzatzute,
 Gusto du Jaungoicoac;
 Arren cumplitzatzute,
 Arren artu asmoac,
 Arren au eguzute,
 Izateco Cerucoac.

(4) Olantxe dago esku-idaztian: *Larter*=“r”-kin.

(5) Olantxe: *Laster*=“s”-kin.

*Aldareco Sacramentu Santuaren cantac Elizaco
Sacris Solemnisen donuan cantaceco*

Sarrera

Oguei, ta sei verso
Noa cantatcera,
Jauna alabatceco,
Noa acitcera;
Betoz nai dutenac
Abec aditcera,
Dira Jaungoicoarenac.

[1]

O arrigarria!
Icusten derana,
Da zoragarria
Sinisten derana,
Ecer ez batean
Andiena dana,
Dago mundu zabalean.

[2]

Anima nerea
Considera zazu,
Cristau chit maitea
Arren pensa zazu,
Ta zure buruan
Beti iruqui zazu
Dagoena onela munduan. (6)

[3]

Gauza chit chiquian
Danic andiena,
Hostia batian
Gauzaric onena,
Onela arquitcen da
Eguin cinduena,
Iñor guchi oroitcen da.

(6) Goitik-beraiño, orban-borroi audi batek loituta dauko orrialdearen ertza. “Munduan” itzaren “n” azkenengo izkia arrapetan dau orban-borroiak.

[4]

O cer pensatcen det
Nic egun guztian?
Cer nic eguiten det
Egun, ta arratsian?
Ez det nic pensatcen
Mirari añ andian,
Ala ez det adoratcen.

[5]

Jaun pare gabea,
Adoratcen zaitut,
Jaun guztiz maitea,
Nic amatcen zaitut,
Bada Aldarean
Or icusten zaitut,
Modu guztiz humillean.

[6]

Andia izan ta ere
Guztien gañian,
Ez dezu batere
Ezagun Hostian,
Zu or sinisturic
Modu añ humillian,
Gaude gustiz arrituric.

[7]

Baña Jesus ona,
Itz eguiñ bear dizut,
Izanic guizona,
Au galdetcen dizut,
Cer gusto cenduen
Aditu nai dizut,
Orrela guelditceco emen.

[8]

Jesusec:

Ai cristau maitea,
Esaten dirazu,
Naiz zure jabea,
Bada adizazu,
Amorez nintzala,
Arren sinis zazu,
Jarri nagoen bezala.

[9]

Nere atseguiñac
Dira guizonaquin,
Nere aleguiñac
Izatea beraquin
Ala nai izan nuen
Milagro andiaquin,
Guelditu zuequin emen.

[10]

Amorio onetzaz
Nor da acordatcen?
Mundu zoro orretzaz
Zerate zoratcen;
A esquer gabeac,
Nola da au pasatcen?
Esquer gaizto emalleac.

[11]

Gabáz ta egunez
Ni beti elizan,
Zuec casoric ez
Baicican guchitan,
A cristau zoroac,
Nai dezute izan
Orren esquer charrecoac?

[12]

Munduco andiac
Acompañatuac,
Ta nitzaz guztiac
Zaudete aztuac,
A biotz gogorac,
A engañañatuac,
Zaudetz neretzat gorrac.

[13]

Lagun onarequin
Egon nai dezute,
Baña guchirequin
Logratcen dezute,
Ona emen nago
Ni nai banazute
Ni baceñ onic ez dago.

[14]

Cristabac:
Emendic aurrera
Maizago joango naiz
Jauna zure echera,
Orchen egongo naiz
Zu acompañatcen
Ta gozatuco naiz
Aleguiña zu alabatcen.

[15]

Ecin deranean
Zugana allegatu,
Ceren nere echean
Bear deran gueratu,
Andic eguingo det
Zu or adoratu,
Zugan maiz pensatuco det.

[16]

Jesusec:

Oraindic guiyago
Anima garbia,
Orrequin ezdago
Eguiña guztia,
Ni emen naucazu
Zure janaria,
Ala maiz artu bear nazu.

[17]

Ya nere goseric
Ez dago zuetan,
Ni maiz artzalleric
Guchi guztietañ;
Cer arrazoirequin
Bici ceruetan
Uste dezute nerequin?

[18]

Zuen amorioz
Emen zoraturic,
Zuen suspirioz
Emen humilduric,
Baña naucazute
Despreciaturic,
Arren artu nazazute.

[19]

Zuen premiaric
Ez det nic ispiriric,
Zuen onagatic
Onela jarriric,
Arquitcen naiz emen
Janari eguiñic
Jarteco zuen barrenen.

[20]

Ondo daquizute
Dala au eguiia,
Baña daucazute
Biotza naguia,
Beti paraturic
Mundura beguia,
Zuen animac galduric.

[21]

Indar guchirequin
Anima da arquitcen,
Ez banau berequin
Maiz errecibitcen,
Etsayac argatic
Asco du eguiten,
Zuec ni ez artceagatic.

[22]

Argui zaitezte beñ
Au ezagutceco,
Atozte lembaitlen,
Ni errecibitceco,
Jarriric gracian,
Ala mantentceco
Mayaric dan onenian.

[23]

Cristabac:
Arrazoya dezu
Jaun maitagarria,
Ondo esan dezu
Jaun zoragarria,
Zuc beti daucazu
Gure egarria,
Ta zutzaz guera gu aztu.

[24]

Nic ezagutcen det
Nere esquer gaiztoa,
Bertatic artcen det
Zuganaco asmoa,
Oraindiño egon naiz
Zutzaz chit aztua,
Baña ya egongo ez naiz.

[25]

Aldan ondoena
Zugan biurturic,
Alderan maicena
Ondo prestaturic,
Or izango nazu
Culpac lajaturic,
Zure gracia indazu.

[26]

Zu artuarequin
Maiz modu onetan,
Izatea zurequin
Ceru altuetan,
Nere egunetan,
Esperatuco det
Baita ere logratuco det. Amen.

Sacramentu Santuaren cantentzat estribilloa

Mugitu gaitecen
Jauna adoratcera
Anima gaitecen
Maiz visitacera,
Bai Sacramentuan,
Eta artutcera,
Anima ondo garbituan.